

# Zorionak eta urte berri on!



Neguko oporrek bailaran

# Neguko oporretarako egitarau zabala prestatu dute bailaran

Urumea bailarako herriak prest daude neguko oporretarako, eta aurten ere, egitarau zabala antolatu dute. Hernanin, Astigarragan, Goizuetan eta Aranon, gabonetako Olentzeroren eta Maridomingiren bixitaz gain, hitzaldiak, kontzertuak, irakurraldiak edota mendi irteerak antolatu dituzte.

## HERNANI NEGUKO OPORRAK

Gabon usaina nabari da dagoeneko bailarako kaleetan, eta badatoz hainbeste itxaron diren neguko oporrek. Urtea amaitzeko eta berri bat hasteko muga horretan, bailarako herriak prest daude opor egun hauek topera gozatzeko. Hernanin, Astigarragan eta Goizuetan Udaleko zenbait sailek eta herriko zenbait eragilek elkarlanean, neguko opor hauetarako egitarau zabala prestatu dute. Hernanin egitarau berezia plazaratu du, abenduaren 17an hasi zena eta urtarrilaren 4ean amaituko dena. Tartean, ludoteka, tailerak, filmak, kontzertuak edota irteerak egiteko aukera egongo

da. Batez ere, 0 eta 17 urte bitarteko haur eta gazteentzako eskaintza plazaratu dute, baina helduek ere izango dute zer egin eta zer ikusi tartean. Gainera, eskuartean diren ekintza gehienak dohainik izango dira.

## Etxeko txikieneen zirrara

Hernaniko haurrentzako eskaintza bereziki zabala izango da datozen asteetan. Alde bate-tik, gabonetako ludotekan parte hartzeko aukera izango dute, hilaren 23, 26 eta 27an. Goizeko 10:00etatik 13:00ak bitarte jolasteko modu eta tresna ezberdinak izango dira. Normalean txikienei izugarri gustatzen zaien esperientzia izaten da ludotekarena.



Olentzero eta Mari Domingiren etorrera izaten da haurren zita gogokoena.

Bestalde, txikienezat gabonetako zita garrantzitsuenetako bat izaten da Olentzero eta Maridomingiren etorrera. Urtero lez, abenduaren 24an bixitatu-ko dituzte Hernaniko haurrak Olentzerok eta Maridomingik. Zinkoenean elkartuko dira hasieran, arratsaldeko 17:00etan,

eta kale bueltari hasiera eman-  
go diote. Arratsaldeko 16:00etan  
erronda ere egingo dute bertso  
eskolakoek Iparragirretik abia-  
tuta.

Komiki tailerra ere eskai-  
niko du Ainaraz Azpiatzuk 'Axi'.  
Liburutegian burutuko da tai-  
lerra, eta 10 eta 13 urte arteko

haur eta gaztetxoentzat bidera-  
tuta egongo da. Lau saio izango  
dira guztira: abenduaren 26 eta  
27an, eta urtarrilaren 2 eta 3an.

Zinea eta antzerkiak gozatzeko  
aukera ere izango dute hau-  
rrek eta baita gurasoek. Zinekluban  
E.T filma euskeraz ikusteko  
aukera izango da, abenduaren

**ALAI**  
ODONTOLOGIA ZENTROA

**GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**

RPS 23/20

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaiahernani@gmail.com

**AITAN - ETXE  
TABERNA**

GABON  
JAI  
ZORIONTSUAK!

Larramendi, 15  
943 55 00 46

EMAKUME,  
GIZON  
ETA HAURRAK

IRIGOYEN

ELKANO, 4  
TEL. 943 55 08 31  
HERNANI

EGUBERRI ON!!

**iparrao**  
sukaideak

ZORIONAK  
ETA  
URTE BERRI ON

Ibarluze poligonoa, 7  
20120 - Hernani  
t. 943 556 760

WWW.IPARRASUKALDEAK.COM

26an Biterin izango da ikusgai, arratsaldeko 17:00etan hasita. Zirku antzerkia abenduaren 30ean izango da, arratsaldeko 17:00etan Sandiusterrin. Bestalde 'Teilatupean' antzerkia ere eskainiko da, familien gozagarriarako, urtarrilaren 2an arratsaldeko 18:00etan. Sarrerak Biterin edota [kultura.hernani.eus](http://kultura.hernani.eus) webgunean eskuratu daitezke.

Liburutegiko 'Baietz asmatu' jolasaren sarien zozketa ere egingo da urtarrilaren 3an.

#### Musika tailerra, estreinakoz

Aurtengo neguko oporrek badute nobedadetik, izan ere, estreinakoz antolatuta dute txikiak musika tailerra Hernanin. 0 eta 6 urte bitarteko haur eta haien heldu erreferenteentzako tailerra eskainiko da, Kukurtsen eskutik. Bi eguneko tailerra izango da, hilaren 26an eta 27an, Sandiusterrin.

#### Hernaniko Gaztelekuan neguko ekintza berezia

Gaztekoak beraiantzako eskaintza zabalagoa aurkituko dute Gaztelekuan. Bertako hezitzaileek neguko ekintza bereziak antolatu dituzte aste hauetarako, bereziki 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako direnak. Tartean, tazak margotzeko tailerra, txokolatada txurroekin, 3D argazki magikoaren tailerra, paninien arratsaldea edota costa jump-era irteera. Hezitzaileek gogoratu dute ekintzetan parte hartzeko izena ematea derrigorrezkoa izango dela, [gaztelekua@hernani.eus](mailto:gaztelekua@hernani.eus) helbidera idatziz edota 688 82 34



20 telefono zenbakira deituta.

#### Gazte eta helduentzako kontzertua Biterin

Neguko oporretako egitarauan helduek ere izango dute zertaz gozatu. Batetik, atzo, Andoni Mutiloa hernaniarrak 'Nire fantasia' kabareta eskaini zuen Biterin bertan. Bestalde, Idokia Asurmendiren kontzertua ere izango da, hilaren 28an. Biterin izango da, gaueko 22:00tan hasita eta zutikako kontzertua izango da.

#### Goizuetan ere plan ederrak gabonetan

Goizuetan ere izango da zer egin gabonetan. Bihar bertan, Umore ona abesbatzka eta herriko gaztekoak elkarrekin gabonetako kontzertua eskainiko dute, 12:15etan elizan. Etzi, Palestinen egoeraren inguruko hitzaldia eskainiko du Palestinan jaio eta Goizuetako familia duen Hashem Tawfiq Al Khalili herritarrek. 'Iragana eta etorkizuna' izenburupean arituko da hizketan.

Abenduaren 24an ere ohiko errondegian girotuko dute he-

rria. Goizean, 11:00etan, DBHko ikasleak aterako dira, ikasbidaia antolatzeko dirua lortzera. Ezker Abertzaleko kideek ere arituko dira kantuan egunean zehar.

Eguberriko tailerrak ere izango dira herriko txikienentzat. Abenduaren 26, 27 eta 31n. Goizak euskeraz eta jolasean igarotzeko aukera izango da tailerretan.

Goizuetako irakurle taldea ere bilduko da opor hauetan, zehazki, abenduaren 30ean arratsaldeko 18:30etan Tifanitxon. Eta, urtea amaitzeko mendi buelta ere antolatu du Arainburu mendi taldeak. Urtarrilaren 31n Mandoegi IV irteera burutuko dute, eta goizeko 08:00etan abiatuko dira plazatik.

#### Astigarragan jolas aretoa neguko oporretan

Astigarragan ere zenbait ekintza antolatu dituzte datozen opor egunetarako. Hasteko, zineaz gozatzeko aukera izango da bihar. Haurrentzako 'Super Klaus' pelikula eskainiko da 2 eurotan, Erriberan. Arratsaldeko 16:30etan hasiko da eta eus-

keraz izango da. Helduentzako 'Jurado N°2' pelikula eskainiko da, 5 euroren truke, Erriberan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta gaztelaniaz izango da.

Haurrentzako eskaintzaren barruan, jolas aretoa gailentzen da. Etzitik hasi eta urtarrilaren 4a bitarte Astigarragako haurren eguberrietako oporrak lagunekin jolasean igarotzeko aukera izango dute. Goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 18:30etara irekiko da aretoa, eta doan izango da 8 urtetik 12 urte bitarteko nerabeentzat.

Abenduaren 24an, Olentzero eta Maridomingik Astigarragako haurrak ere bixitatuko ditu, goizeko 11:00etatik 12:00etara, Foru plazan. Arratsaldean, Zelabide auzoan izango dira Olentzero eta Mari Domingi.

Hilaren 28an Ines Goñi abeslariak Ivan Azkarate, David López eta Borja Doloñoren ahotsen laguntzarekin, gospel errezitaldia eskainiko du genero honeko abesti eta abeslari protagonista askorekin. Arratsaldeko 19:00etan izango da emanaldia, Erriberan. Zirku eskaintza ere egingo da Xabi Larrearen esku-

tik, abenduaren 29an.

Azkenik, urteari amaiera goxo bat emateko, urte zahar egunean, koplak abestuko dituzte Bostirieta 'Bustieta' baserriatik abiatuta, goizeko 11:00etan. Kantuz taldeak antolatu duen ekimena da, eta parte hartu nahi izanez gero, 637 736 629 telefono zenbakira deitu behar da. Gazte topa ere egingo dute Zipotza elkartean, 01:30etan Astigarragako Gazte Asanbladaren eskutik.

#### Aranoarrak etxez etxe kantari

Aranon abenduaren 24an urtero bezala herriko umeekin batera etxez etxe kantari mugituko dira. Goizeko 09:00etan abiatuko dira Surotik. Miaxiria aldiakaria, bi urtero ateratzen dena euskera zerbitzuari eta herritarren laguntzari esker, 24ko egunean banatuko da.

#### 24 arratsaldean aterako dira Txirritako haur eta gurasoak

Hilaren 24an auzoan zehar abesten arituko dira Ereñotzuko Txirrita eskolako haur eta gurasoak. Aurtengoan arratsaldean egingo dute erronda, 14:15etan eskolako patioan elkartuta. **k**



**elkarrekin**  
Podemos

پەز  
bakea  
سلام  
Мир  
שלום

Urte berri on!

**HATOR**  
AHOLKULARITZA

Gabon zoriotsuak  
eta urte berri oparoa  
opa dizkizuegul

Andrekale, 60. Hernani  
Tel: 943 55 43 12  
[www.hatoraholkularitza.eus](http://www.hatoraholkularitza.eus)

**Aldarraga**  
HERNANI (Donostia)

Gabon jai ezinbestekoak  
opa dizkizuegul

**ADARRAGA**  
Gozotegia

Urbietan Etorbidea 7  
☎ 943 55 09 10

Zorionak eta urte berri on!

**G ALDABE | FARMAZIA**

**ALTZEA**  
automecánica

- Olio eta filtroak aldatzea
- Mailak kontrolatzea eta doitzea
- Frenoak kontrolatzea (frenometroa)
- Suspensio kontrola (bankuan)
- Neumatikoen kontrola
- Holguren kontrola (bankuan)
- Argiak kontrolatzea eta doikuntzak

Cepsa olioak jartzearekin argidun llibero bat eta kotxerako mobileko euskarri

**AUTOMOBILAREN ZERBITZU INTEGRALA**

Zkuñaga auzoa, 20 1. nabea HERNANI 943 333 177 [e.maluenda@hotmail.com](mailto:e.maluenda@hotmail.com)

**gse**  
Asesores

Zorionak eta urte berri on!

Gudarien plaza, 13. Hernani  
Telefonoa: 943 55 02 54  
Faxa: 943 33 58 01  
[gse@gseasesores.net](mailto:gse@gseasesores.net)

**ikusi-makusi**  
Eguberri!!!  
Abenduak 28 eta  
urtarrilak 4 arratsaldez irekita

Facebook.com/ikusimakusi  
Instagram.com/ikusimakusihernani

Nagusia, 7. Hernani  
☎ 843 63 04 69 ☎ 634 607 099

**Neguko oporrak bailaran**

**HERNANI**

**Abenduak 23** Gabonetako kontzertua: Hernaniko Musika Banda. Arratsaldeko 20:00etan hasita, San Joan Bataiatzailearen elizan.

**Abenduak 23, 26 eta 27** Gabonetako ludoteka, Kiroldegian goizeko 10:00etatik 13:00etara.

**Abenduak 24** Gabon gaueko kale buelta, Kantuz abesbatzarekin. Eguerdiko 12:00etan Milagrosatik.

**Abenduak 24** Erronda baserriz baserri Bertso Eskolakoekin, arratsaldeko 16:00etan Iparagirren hasita.

**Abenduak 24** Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, arratsaldeko 17:00etan Zinkoenetaik.

**Abenduak 24** Gabon gaueko erronda, Hernaniko Musika Bandarekin. 20:00etan hasita erdigunetik.

**Abenduaren 26 eta 27** Txikientzako musika tailerra, bi saiotan egingo da. 0 eta 6 urte arteko haur eta haien heldu erreferenteentzat izango da, Kukutrasen eskutik.

**Abenduaren 26, 27 eta urtarrilaren 2 eta 3** Ainara Azpiazu 'Axi' rekin komiki tailerra. 10 eta 13 urte arteko haur eta gaztetxoentzat.

**Abenduaren 26** Zinekluba: E-T filma euskeraz. Biterin arratsaldeko 17:00etan.

deko 17:00etan.

**Abenduak 26** Tazak margotzeko tailerra Gaztelekuan.

**Abenduak 27** Txokolatada txurroekin, Gaztelekuan.

**Abenduak 28** Laser Tag-a Gaztelekuan.

**Abenduak 28** Idoia Asurmendiren kontzertua. Gaueko 22:00etan izango da eta zutik. Sarrerak: Biterin edo online.

**Abenduak 30** Zirku-antzerkia, arratsaldeko 17:00etan Sandiusterrin. Sarrerak: Biterin edo online.

**Abenduak 31** Urtezahar eguneko erronda, Hernaniko Ohitura zaharrak abesbatzarekin. Arratsaldeko 17:30etan udaletxeko arkupetik.

**Urtarrilak 2** 'Teilatupean' antzerkia, Biterin arratsaldeko 18:00etan. Sarrerak: Biterin edo online.

**Urtarrilak 2** 3D argazki magikoak egiteko tailerra, Gaztelekuan.

**Urtarrilaren 3** Liburutegiko 'Baietz asmatu' jolasaren sarien zozketa.

**Urtarrilak 4** Costa Jump-era irteera.

**GOIZUETA**

**Abenduak 22** Gabonetako kontzertua Umora Ona abesbatzak eta herriko gaztetxoak elkarrekin. Eguerdiko 12:15etan elizan.

**Abenduak 23** Hitzaldia: 'Iraga-

na eta etorkizuna'. Hashem Tawfiq Al Khaliliren eskutik, arratsaldeko 18:00etan udaletxeko ganbaran.

**Abenduak 24** Olentzeroa. Goizean DBHko gazteak eta egunean zehar Ezker Abertzaleko kideak.

**Abenduak 26, 27 eta 31** Eguberriko tailerrak haurrentzat.

**Abenduak 30** Goizuetako irakurle taldeak Uxue Alberdireren 'Jenisjoplin' liburuaz ariko da, arratsaldeko 18:30etan Tifanitxon.

**Abenduak 31** Arainburu mendi taldeak antolatuta, mendi irteera Mandoegi IV. Hitzordua goizeko 08:00etan plazan.

**ASTIGARRAGA**

**Abenduak 22** Zinema. 'Super Klaus' haurrentzat eta 'Junardo N°2' helduentzat. Erriberan izango dria, lehenengo 16:30etan eta bigarrena 19:00etan.

**Abenduak 23tik urtarrilak 4ra** Jolas aretoa haurrentzat. Goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 18:30etara. Doan eta 8 eta 12 urte bitarteko nerabeentzat.

**Abenduak 24** Olentzero eta Maridomingi Santiagomenditik jaitsiko dira kalejiran, Foru plazara. Xaguxar elkartearen eskutik. Goizeko 11:30etatik 12:00etara.

**Abenduak 24** Olentzero eta Maridomingi Zelabide auzoan egongo dira, arratsaldeko 18:00etan.

**Abenduaren 28** 'Samaria gospel singers' musika ikuskizuna. Arratsaldeko 19:00etan Erriberan.

**Abenduaren 29** 'Ping pang' zirku emanaldia Xabi Larrairen eskutik, arratsaldeko 17:00etan Erriberan.

**Abenduaren 31** Urte zaharreko koplak kantuz taldearekin

batera. 11:00etan hasita Bostirieta 'Bustieta' baserrietik hasita.

**Abenduaren 31** Gazte topa Zipotza elkartearen 01:30etan, Astigarragako Gazte Asanbladak antolatuta.

**ARANO**

**Abenduaren 24** Etxez etxe kantari 09:00etan Surotik.

**Abenduaren 30** Eguberrietako tailerra Maixuenean 10:00etatik 13:00etara

**EREÑOTZU**

**Abenduak 24** Erronda. Txirritako haur eta gurasoak auzoan zehar abestuko dute. 14:15etan aterako dira.



**AMAIA**  
OKINDEGIA - GOZOTEGIA  
Amaia Uitzzi Anton  
*Zorionak eta urte berri on!!*  
Kale Nagusia - GOIZUETA 948 51 42 42

**urteberri on!!**  
AZKEN KILOMETROA  
943 24 71 41 Akarregi, 1 Hernani

**Amaia** arrandegia  
*Zorionak eta urte berri on!*  
943 55 07 52 / 650 53 87 72  
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

**BRINTZA**  
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA  
**Zorionak eta Urte Berri On!**  
www.brintza.com  
URBIETA KALEA 15, HERNANI  
Tel.: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

**ANTZIOLA, 3**  
Tel. 943 55 17 91  
**HERNANI**  
ondo pasa gabonetan!  
**ANTZIOLA**  
OKINDEGIA

**sulabe**  
*Ogirik berceña*  
Eraman zure mahaira Sulabe ogia  
sulabe.com  
Peña Okindegia, Hernani  
Tel. 943 552 398  
Sulabe, Hernani  
Tel. 943 554 954  
**Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**

## Kalejira Herrikoia

# Kalejira herrikoia egingo dute asteartean Hernaniko kaleetan barrena

Hiru ibilbide prestatu dituzte, eta 10:30etan abiatuko dira Atsegindegitik, Portutik eta Txantxillatik. Ondoren, 12:00etan Gudarien plazan elkartuko dira. Hiru ibilbideetan izararekin joango dira gaztetxoak, eta bertan eskuratutako dirua Pausoka Elkartearentzat izango da.

**HERNANI KALEJIRA HERRIKOIA**

Herriko guraso talde batek antolatuta, aurten ere Kalejira Herrikoia egingo dute Hernanin. Abenduaren 24an izango da, eta herriko haur eta guraso guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Musikarien laguntzarekin egingo dute bidea, eta geldialdiak egingo dituzte gabon kantak abesteko.

Hiru abiapuntu izango dira asteartean, eta adinaren araberrako taldeetan bereizi dute deialdi antolatzaileek. Hiru kasuetan 10:30etan jarri dute hitzordua.

Lehenengo ibilbidea Haur Hezkuntzako ikasleentzat prestatu dute; kasu honetan, Atsegindegitik atera, Urbieta kalea pasa eta Iturriaga kalean gora iritsiko

dira Gudarien plazara. Bigarren ibilbidean Lehen Hezkuntzako ikasleak joango dira; hauek Portuko Ibarrolaburu plazan hasiko dute martxa, Oindi eta Larramendi kaleak pasako dituzte gero, eta Kaxkoan zehar borobilduko dute itzulia. Azkenik, Txantxillatik abiatuko dira Aratz Ikastolako ikasleak; Oarso, Elkano eta Txirrita kaleetan behera egin ondoren, Izpizuatik barrena iritsiko dira Gudarien plazara.

12:00etan ekitaldi nagusia egingo dute Gudarien plazan, hiru ibilbideetako ikasleak elkartuta. Euria egiten badu, Atsegindegin egingo dute ekitalditxoia.

**Jasotako dirua Pausoka Elkartearentzat izango da** Herriko ikasleak izara batekin

aterako dira kalera, eta bertan pilotzen duten diru guztia Pausoka Elkartearentzat izango da.

Antolatzaileek parte hartzeko deia egin diete herritar guztiei: «Aurtengoa ere ilusioz prestatutako ekimena dugu, beraz, denontzako berezia izan den egun horretan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Era berean, azpimarratu nahi dugu, ekimenak arrakasta izan dezan, guztion konpromezua eta laguntza ezinbestekoa dela». **k**

**KANTUTEGIA****Ondorengo abestiak kantatuko dituzte haurrek kalejiran zehar:**

Olentzero joan zaigu  
Din dan don  
Alaken-alaken  
Horra Mari Domingi  
Hator hator  
Ole Olentzero  
Olentzero eta astoa



Txantxillatik abiatuko dira Aratz Ikastolako ikasleak.



HHkoak Atsegindegitik plazara.



Portutik irtengo dira LHkoak.

**DORRONSORO**  
OKEINDIA

Ogi egin berria beti zure eskura

**Zorionak eta urte berri on!**

Obradore nagusia Akarregin  
Akarregi poligonoa 14A-2  
DENDA, KUTXIAK ETA KAFETEGIA  
Ordulegia: 5:30-15:00 / 16:00-20:00  
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan  
Liznaga kalea 4  
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN  
Ordulegia: 7:15-14:15 / 17:00-21:00  
Jalegunetan: 7:15-14:15

**Eukene**  
Jantxidenda

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Nafar kalea, 14 - Tel.: 943 332 199

IMANOL KAMIO  
musika eskola

**DOINU ZALE**  
KARABEL AUZOA, 4 - behea ezterra  
943 33 12 33

Solfeoa	Biolontxelo	Tronpeta
Pianoa		Trikitixa
Ahordeoa		Kitarra
Panderoa		Abesbatza
Bateria Modernoa		Armonia

943 33 12 33 - 655 713 365  
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.  
Eguberri On!

**ARTOLA**  
HARATEGIA

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Andre Kale 20  
· Hernani ·  
Tlf.: 943 05 54 89

**Eguberri on!!**

**ITXASPE**

Arrendegia  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobila: 665 735 224  
20120 Hernani

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

**BERRIAK**  
Hernani

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Olentzeroren eta Mari Domingiren etxea

# Arriatxun elkartu dira bailarako haurrak Olentzerorekin eta Mari Domingirekin

Arriatxun bizi dira Olentzero eta Mari Domingi, eta Dobera Euskara Elkarteari esker euren etxea bisitatzeko aukera izan dute bailarako haurrek. Txokolatea, opariak, bizipoza... Osagai eder horiekin ilusioz gainezka ibili dira txikienak.

## HERNANI OLENTZEROREN ETXEA

Xarma berezia du Arriatxuko eskolak. Osifagako bizilagunek asko maite duten lekua da, eta, kokapenagatik bada ere, badu ukitu magiko bat. Azken hiru asteburutan, ordea, are magikoagoa bihurtu da Arriatxu, Olentzerok eta Mari Domingik bertan egin baitiete harrera herriko gaztetxoei. Gaur eta bihar egingo dituzte azken bixitak, eta horiek egin aurretik Olentzerorekin eta haurrekin hitz egiteko aprobeztatu du Kronikak.

## Hiru egun falta dira 24rako, zer moduz zaude?

Ongi!!! Urduri ere bai, baina oso pozik gaude. Urte osoan zehar gabiltza lanean ikatzgintzan, baina belarriak tente izaten ditugu bailarako haur guztien kontu eta kantuak entzuteko. Buru belarri gabiltza talde lanean, eta denok dugu zer egina gure etxean. Mari Domingik eta biok gutunak adi irakurtzen ditugu opariaren zerrenda osatzeko, eta txondor magikoaren laguntzaz, haurtxoen eta helduen opariak sortzen ditugu.

## Napoleonen eta galtzagorrien laguntza izaten duzue?

(Barrez) Ez dakit zer esan... Txantxa da! Langile fiñak dira Napo eta alproja txiki hori. Galtzagorrik guk sortutako opariak biltzen ditu, eta Naporen miazkadarekin ixten ditu opariak!

.....

## OLENTZERO:

«Bailarako haurrak bihurriak dira, baina bihotz onekoak»



Mari Domingi, Galtzagorri eta Olentzero, umeen bisita jasotzeko prest.

Etxeko ganbaran jasotzen ditugu guztiak, txukun kokatuta, 24 gauean herriz herri, etxez etxe, bakoitzak bere oparia jaso dezan.

## Zer moduzkoak dira Urumea bailarako haurrak?

Etxean daukagu txintxo portatu diren haurren zerrenda potoooooa. Betaurrekoak jantzi eta adi irakurri dugu haur

bakoitzaren izena. Eta gauza bat esango dizuet!!! Bailarako guztiak agertzen dira bertan, ez da bakar bat ere falta! Hala ere, bihurriren bat edo beste aurkitu dugu zerrendan... Aiiii.... Bailarako haurrak bihurriak dira, baina bihotz onekoak.

## Zer harreman duzu Osifagako bizilagunekin?

Osifagako jendea atsegiña da

benetan. Harreman polita sortu dugu azken urteotan. Amaia eta Zuhaitz, adibidez, gertuko lagunak ditugu. Ostegun goizetan elkartzen gara beraiekin kafe bero bat hartzeko. Hortxe egoten gara gure etxeko atarian kontu kontari. Napo eta Galtzagorri ere ederki moldatzen dira Onddipe baserriko Balentxi astoarekin, eguzkia atera orduko soroan etzan eta eguzkia har-

ZORIONAK  
ETA URTE  
BERRI ON!

Bizi Eguberri desberdin bat,  
non haurrek ingelesa ikasten duten  
bizitzako lehen urtetik.

Kale Nagusia, 7  
Tel.: 943 55 00 32

Ilusioz  
beteriko  
egunak...

GOZATU!!

Andre kalea, 35 HERNANI 943 05 74 74

IRUBIDE  
JATETXEA

Zorionak  
eta urte berri on!

Epele auzoa, 7  
943 552 480 - 667 208 702

JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU!

URTE BERRI ON!

HERNANI  
BIDAIAK

Urbieta 6  
943 33 00 49  
634 61 52 74

JARRAITU: Instagram Facebook Twitter

www.hernanibidaiak.eus

tzen egoten dira kantari. Aparta da hirukotea mihia luzatuta txokolate pertzan geratzen diren arrastoak garbitzeko ere... jejeje.

### Ikusten dudanez, opariak baino askoz ere gehiago dira zuentzat gabonak...

Bai... Arduratuta gaude Mari Domingi eta biok. Izan ere, gaur egungo haurrek eta gurasoek opariak bakarrik izaten dituzte buruan. Ez dute gabonetako magiarik euren bihotz barruan. Guk maite ditugu gabonak: herrira jaitsi, betiko lagunekin elkartu, bazkaloste luzeak izan... baina Mari Domingik eta biok gehien maite duguna zera da; elurrarekin jolastea. Ea aurten-goan gabonetako magia sorra-

raztea lortzen dugun!

### 24a pasatakoan zer egingo duzu?

Gure lana urte osokoa da, baina pixkanaka joango gara berriro martxa hartzen. Hasieran egun batzuk hartuko ditugu deskantsatzeko, eta ondoren ekingo diogu datorren urtekoa prestatzeari.

### Bailarako haurrak, pozez txoratzen

Ikustekoa izan da azken hiru asteetan Olentzeroren eta Mari Domingiren etxera iritsi diren haurren aurpegia. Ilusio haun-

diarekin ezagutu dituzte etxeko kide guztiak, baita Napo eta Galtzagorri ere. Bertan, haur bakoi-tzak urtean zehar izan duen jarrera xehe-xehe azaltzeaz gain, kontu kontari aritzeko aukera paregabea izan dute.

Bisita amaitu eta segituan, honakoak izan dira bailarako gaztetxoek adierazpenak.

#### Uxue - 9 urte

«Olentzero eta Mari Domingiren etxea oso polita eta magikoa iruditu zitzaidan. Bai Napo astoa eta Galtzagorri asko gustatu zitzaizkidan. Olentzerok gure gauzak jakiteak harritu ninduen, asko gustatu zitzaidan»

#### Oihan - 5 urte

«Orain arte Olentzerori eta Mari Domingiri egin diegun bisitarik onena izan da. Egun onena izan da gaurkoa»

#### Martina - 4 urte

«Oso ondo pasa degu. Txokolatea gailatekin jan dugu, abestu dugu, eta gutuna eman diogu. Gehien gustatu zaidana txokolatea izan da»

#### Aimar - 5 urte

«Olentzeroren eta Mari Domingiren etxean egon naiz, Galtzagorri bordan. Eskutitzak bildu dituzte eta gero txokolatea hartzera joan naiz. Esperientzia polita izan da, gehien gustatu zait eskutitza emateko momentua. Napo astoa zegoen kanpoan eta Galtzagorri ere bai, eta bukaeran joan gara kanpora Napori kaso egitera eta argazkiak egitera. Napo oso jatorra da, muxu bat eman dit». **k**



Kolorez betetako etxea daukate Olentzerok eta Mari Domingik.

**Olentzero: «Etxean daukagu urtean zehar txintxo portatu diren umeen zerrenda, eta gauza bat esango dizuet; Urumea bailarako guztien izenak agertzen dira bertan, ez da bakar bat ere falta! Bihurriren bat edo beste badago, baina guztiak dira bihotz onekoak. Oso pozik nago beraiekin»**



Napo txintxo txintxo egoten da etxeko atarian, lehenengo harrera egteko.

**Xarmant**  
Ileapaindegia  
Estetika Zentroa  
**Urte berri on!!!!**  
Ostolaza 2. Tlf. 943 32 59 08

**Eguberri on!**  
**PINEDA**  
HARATEGIA  
Andre kalea, 32. Hernani  
943 55 16 43

**URTEmore BERRION!!!**  
**Ongi bukatu ta hobeki hasi!!!**  
**MUNDA R&BO KE**  
ASTIGORRAGA

**PORTALONDO**  
estankoa  
Tabakoa  
Puru aitzurketa  
Loteria  
Jokoak  
Paperdenda  
**Zorionak eta urte berri on!**  
T 943 55 19 91 - Andre kale 46 Hernani  
info@portalondoeestankoa.eus  
www.portalondoeestankoa.eus

**Urrutia Farmazia**  
**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**  
SPD/ANALISIAK/DERMOFARMAZIA/ZERBITZU DESBERDINAK  
Etxeberriz Auzoa 1, Hernani  
943 55 77 38 / 688814035  
urrutia.farmacia@gmail.com

**Mahuka**  
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!  
ANDRE KALEA, 28 BEHEA  
HERNANI  
943 333 639

**RIOJA TABERNA**  
Kale Nagusia, 6. Hernani  
2024 urtea ere pasa zaigu...  
Urte berri on guztioi!



Gorka Eizmendi, lankideekin batera jo eta su bezeroei arreta egiten, Pineda harategian.

## «Haragi kontuetan, 'sota, caballo y rey' izaten da Gabonetan: solomilloa, txuleta, arkumea...»

Lanpetuta dabilta egunotan Pineda harategian: «Abenduko zubitik ari gara enkarguak jasotzen. Solomilloa eta txuleta dira ohikoenak Gabonetarako», dio Gorka Eizmendik.

### HARAGIA GORKA EIZMENDI

Goizeko 08:20etan sartu gara Pineda harategira. Bost minutu dira ateak ireki ditzutela, eta dagoeneko bezero ilara ederra daukate. Oso lanpetuta dabilta egunotan, eta ez da erritmoa jaitsiko abenduaren 24ra arte. Baina une batez labana utzi, eta kasu egin digu Gorka Eizmendik, Gabonetako haragi-ohiturez hitz egiteko.

«Zeharo aldatzen da data hauetan. Eguneroko martxa utzi, eta bazkari edo afari berezitxoagoak egiten ditu jendeak. Haragi kontuetan, 'sota, caballo y rey' izaten da Gabonetan. Solomilloa eta txuleta dira ohikoenak, eta arkumea eta baserriko oilaskoa ere eskatzen dituzte askok. Pikatzeko, berriz, urdaiazpikoa eta foiea.

Baina badira kaxuelak prestatzen dituztenak ere, masailarenak adibidez. Aurretik prestatu ditzakezu, eta azkeneko egunetan lasaiago ibili», azaldu du harakinak: «Mimoarekin prestatuz gero, dena dago goxoa, otordu berezi hauetaz gozatzeko».

Abenduko zubiaren ondoren hasi ziren enkarguak jasotzen, eta azkeneko egun hauetan bilduko dituzte: «Lan pila bat elkartzen zaigu garai honetan. Santo Tomasekin hasten gara, enpresek, klubek eta ikastolek eskatzen baitugute txistorra. Aurten, 300 kilo inguru txistorra egin ditugu egun hauetan. Eta hortik aurrera, ero moduan ibiltzen gara Gabonetako enkarguekin». Ondoren, abenduaren 25etik 31ra, «lasaitu» egiten da erritmoa pixka bat: «24aren aurretik izaten da potenteena.

Gero, oporraldia aprobetxatuz, kanpora ere joaten da jendea, eta gutxiago elkartzen dira otorduetarako».

Gehientsuenek nahi izaten dute haragia azkeneko egunetan hartu eta frexko eraman, zuzenean prestatzeko; baina badira lehenagotik erosi eta izozten dutenak ere, egun hauetako ilarak saihesteko: «Frexko dagoela izoztuz gero, haragiak ez du galtzen, eta ondo mantentzen da», dio Eizmendik.

Eta aitortu digu, haragitik izango duela haien etxeko menuak ere: «Nik gozatzen dut arkumearekin eta txuletarekin, ez nau aspertzen haragiak. Arraia ere asko gustatzen zait, baina ez dut dominatzen sukaldatzeko, eta nahiago dut kanpoan bazkaltzen dugunean eskatu». **k**

# Gabon otordu haragia a

Une berezietakoak izaten dira Gabonetako otorduetan, eta eguneroko menuetik kanpo, gutxiago hartuta, antza dena seinalatua, eta erabaki behar duzue Bietatik hartzen dugu, antza baitaude bailarako harategi

### URUMEA

#### GABONETAKO OTORDUAK

Batetik langostinoak, bestetik urdaiazpiko paleta; orain legatza labean, eta ondoren txuleta. Aitortu beharra daukagu, pixka bat mokofinak izaten garela Gabonetako otorduetan. Gehientsuenek izaten dute jaki goxoez eta gutiziez gozatzeko gogoia, datozen egun seinalatueta.

Izan ere, Gabonetan une berezietakoak dira otorduak, oraindik ere. Familia giroan edo lagunartean elkartu, eta bazkari edo afari eder batez gozatzea da urteroko ohitura, lau hitzordu nagusirekin: Gabon gaueko eta Urte Zahar eguneko afariak (24 eta 31), eta Eguberri zein Urte Berri egunetako bazkariak (25 eta 1).

Jaki goxoez gozatu bai, baina hartzen ote dugu lanik eta astirik horiek prestatzeko? Gero eta gutxiago, harategi eta arrandegietan konturatzen hasita daudenez. Otorduak xinpletzera jotzen ari omen gara pixkanaka: «Garai batean egiten ziren askoz ere plater landuagoak, baina orain nahiago dugu ximple egin, zerbait azkarrak eta goxoa prestatu, eta denok disfrutatu dezagula, sukaldean hainbeste ordu pasa gabe. Guztioi gustatzen zaigu kalean egon eta poteoa luzatzea!», dio Pineda harategiko Gorka Eizmendik.



HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

#bizipenezberdinbat

URBIETA KALEA 10, 20120 HERNANI - 943 552 576





# gabonetako kontuetan, haragia ala arraia?

«n dira otorduak Gabonetan, xpo dauden gutziak eta jaki txatu ohi dugu. Gero eta lan ez... Baina gainean dira data ra daukagu, haragia ala arraia? a denez, enkarguz gainezka eta arrandegiak egunotan.

Kontuak kontu, «azkarra eta goxoa» bilatu edo plater landuagoak prestatu, aukeratu behar izaten dugu: haragia ala arraia? Noiz bat eta noiz bestea? Dirudenez, badago joera orokor bat, arraia afaldu eta haragia bazkaltzekoa. Baina etxe bakoitzak izango ditu bere ohiturak eta gustuak, noski. Behin aurreneko galderari erantzunda, zein haragi edo arrai jango dugun pentsatu behar, eta denborarekin egitea komeni. Izan ere, eskaria izugarri haunditzen da harategietan eta arrandegietan, abenduaren hasieratik aurrera. Enkarguz gainezka dabil-tza Urumea bailaran, eta halaxe ibiliko dira abenduaren 24ra arte, ilara 'polittak' dituztela.

Azkeneko momenturako utzita, litekeena da 'produktu izarrak' izaten diren horiek topatzeko zailtasunak izatea, baina aukera berriak sortzen dira horrelakoetan, eta baita originaltasuna bilatzeko aukera ere.

Errezeta liburuetan edota interneten, topatuko ditugu zientoka bat aukera, ohikoan jaten ez ditugun haragi eta arrai horiekin edonor harritzeko. Bilaketa azkar bat eginda, kolpean topatu ditugu 'Gabonetarako errezeta goxoena' biltzen dituzten hamaika webgune. Baina tira, hori ere lan pixka bat hartu nahi duenarentzat, noski... **k**



Enrike Legarda, bi bezerorekin hizketan, Itxaspe arrandegian.

## «Marisko eskaria haunditzen da bereziki Gabonetan; urte osoan jaten ez duenak, eskatu egiten du orain»

Txipiroiak dira Gabonetako «produktu izarra» arrandegietan, Enrike Legardak aditzera eman duenez; eta labean prestatzeko arraiek ere eskari handia izaten dute, legatza eta xapoa kasu.

### ARRAIA ENRIKE LEGARDA

Enkarguz beteta daukate datozen egunetako zerrrenda, Itxaspe arrandegian: «Gabonetarako, jendeak denborarekin eskatzen du arraia, ziurtatzeko nahi duen hori edukiko duela otordu berezietarako. Izan ere, arrai batzuetan ez dago nahikoa alerik guztientzat, lonjetan. Herritar gehienek, 10 egun lehenago egiten dute eskaera, eta azkeneko bi egunetan biltzera etorri. Eromena izaten da pixka bat, lan guztia pilatzen baitzaigu bi egun horietan», kontatu du Enrike Legardak.

Arrai kontuetan ere, «gauza bereziak» jatea gustatzen zaio jendeari: «Gurean, marisko eskaria da gehien aldatzen dena. Urtean zehar mariskorik jaten ez duenak,

garai hauetan eskatu egiten du. Baina txipiroiak dira produktu izarra une honetan. Izan ere, prest utzi daitezke aldeztetik, eta jateko momentuan berotu. Jendeak lana sinplifikatzen du, gero eta gehiago. Eta horrez gain, labean prestatzeko arraiek ere arrakasta izaten dute. Legatza eta xapoa dira gehien eskatzen dituztenak».

Eskaria haunditzen den arrai horietan, prezioak ere egiten du gora egun hauetan. Badira aldeztetik erosi eta izozten dutenak ere, baina gutxiengoa dira: «Kalamarra eta xapoa dira benetan ondo geratuko zaizkizula ziurtatu dezakezun bakarrak. Gainerakoei ez die mesederik egiten», aitortu du Legardak.

Eta badira, era berean, «urte osoko preziorik merkeenean» dauden arraiak ere,

jendeak garai hauetan ez dituelako eskatzen: «Legatz txikiagoak, adibidez, oso merke daude. Kilo batekoak edo kilo eta erdikoak, jendeak ez ditu eskatzen; haundiak nahi ditu, gehiago elkartuko direlako. Berdin gertatzen da salmoneteekin, fanekin edota oilarrekin. Urteko preziorik onenean daude orain».

Arrai horietan bilatzea aukera ona izan daitekeela uste du Legardak: «Txipiroi batzuk plater zoragarria dira Gabonetako afari baterako, baina korbina edota bakailua ere ederrak dira, eta prezio onean daude urte sasoi honetan». Bat ala bestea izan, haien etxean arraia jango dutela, hori ziur: «Beti izaten dut nahiago arraia, eta data hauetan, hain ohikoak ez diren horiek hartu ohi ditut etxerako». **k**



**Bertako txanpona sustatuz,  
herriko denda txikiak babestu**

**ttilin ttolon**

Pare biomagnetikoa  
Masajea - Osteopatia  
Nutrizionista  
Naturopatia medikua

Txirrita 10. Hernani  
Telefona 943 55 56 94  
WhatsApp 686 265 157

Ordutegia: asteleheneetik ostiralera  
8:15etatik 19:45etara jarraian.  
Eta larunbatetan 9:00etatik 13:30etara.



Haur eta gaztetxoek aisialdia

# Salto eta zilipurdietatik, eskulan, komiki eta musika tailerretara

Beste urte batez, adin txikikoen gozamenerako makina bat aukera prestatu dituzte bailaran, Gabonetako oporraldirako. Jolas parkeak izango dira Hernaniko eta Astigarragako kiroldegietan, eta komiki, musika eta eskulan tailerrak ere bai. Haurrei zuzendutako kultur emanaldiak ere prestatu dituzte, datozen bi asteetarako.

## URUMEA AISIALDIA

Haur eta gaztetxoak izaten dira, ohikoan, aukera gehien izaten dutenak Gabonetan aisialdiz gozatzeko. Bi asteko oporraldia izango dute aurten ere, atzotik Errege Eguna bitarte. Eta horretaz ahalik eta gehien gozatu dezaten, haiei begirako eskaintza zabala prestatu dute Urumea bailarako herrietan, beste behin.

Ez da jolas parkerik falta, Astigarragan eta Hernanin. Abenduaren 23an zabalduko dute jolas aretoa Astigarragako kiroldegi azpiko aretoan, eta urtarrilaren 4ra bitarte egongo da zabalik, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara. Doakoa da, eta 8 eta 12 urte bitarteko gazteentzat prestatu dute bereziki. Jolas ugari topatuko dituzte bertan: ping-pong, mahai jolasak, futbolina, eskulan tailerrak...

Hernanin ere, kiroldegian izango da jolaserako aukera, Kaxkardik gidatutako ludotekarekin, abenduaren 23an, 26an eta 27an. Goizez izango da, 10:00etatik 13:00etara, mota guztietako jarduerekin: eskalada, badmintona, ohe elastikoak, mahai jolasak, arku-tiroa... Karaokea ere izango da, eta azkeneko egunean, bingo solidarioa egingo dute, 11:30etan hasita, Gipuzkoako Elikagai Bankuari laguntzeko: emandako eli-

kagaien trukean banatuko dituzte kartoiak, parte hartzeko.

Ohe elastikoetan aritzeko, Zinkoenean ere izango da aukera, Berriak elkartearen eskutik. Urtarrilaren 6ra arte egongo da haur parkea bertan, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

Tailerrek ere protagonismoa izango dute oporraldian. Hernanin, musika tailerra izango da nobedadea, etxeko txikienentzat. Abenduaren 26an eta 27an eskainiko dute, goizez, Sandiusterrin; eta bi taldetan ariko dira: 0-3 urtekoentzat bat, eta 4-6 urtekoentzat bestea. Komiki tailerra ere prestatu dute, abenduaren 26an eta 27an, eta urtarrilaren 2an eta 3an eskainiko duena Ainara Azpiazu 'Axi' komikigileak. 9-13 urtekoentzat izango da hori, Biterin, 11:00etatik 12:30etara. Bi tailerretarako, alde zuzenetik eman behar da izena.

Eta haur eta gaztetxoentzako eskaintza borobiltzeko, kultur emanaldiak ere izango dira. Erribera kulturgunean, esaterako, 'Pin pang' zirku ikuskizun umoretsua izango da abenduaren 29an, arratsaldeko 17:00etan, Xabi Larrearen eskutik. Eta Biteri kultur etxean, 'Teilatupean' haurrentzako antzezlan eskainiko du Lankuk, urtarrilaren 2an, 18:00etan hasita. **k**



Bi gaztetxo, puzgarrietan saltoka, Astigarragako kiroldegiko jolas aretoan.



Arku-tiroan aritzeko aukera ere izan ohi da Hernaniko kiroldegiko ludotekan.

## Zorionak eta urte berri on!



PSE-EE  
**PSOE HERNANI**



PODOLOGIA  
NEREA URDALLETA GUERRA

**ONDO IBILI  
GABONETAN**

943 55 60 13  
KALE NAGUSIA 16,  
ASTIGARRAGA

Zorionak eta urte berri on!



Bertso Lata

# Bertso bidezko lata ederra jasotzen jarraituko dute hernaniarrek

Abendu erdialdean hasi ziren aurtengo Bertso Latako jarduerak, eta urte berriak ere ekarriko ditu bertso saio ederrak. Urteroko errondez gain, bertso afaria izango da abenduaren 28an, bertso jaialdia urtarrilaren 4an eta kale antzerkia urtarrilaren 5ean. Lata ederra emango dute Paulo Txikiya Bertso Eskolako kideek!

## HERNANI BERTSO LATA

Orain artekoarekin ase ez diren bertsozaleek bertsozaleak gozatzeko aukera izango dute datozen egunetan ere. Hilaren 11n hasi zen aurtengo Bertso Lata, eta dagoeneko bi saio egin dituzte; herriko haurrei zuzendutakoa eta 'Izena eta izana' berezia. Hemendik aurrera beste bost jarduera izango dira, errege bezperara arte.

Abenduaren 24ko errondak emango dio jarraipena Paulo Txikiyako kideek prestatutako egitarauari. Ohiko modura, 16:00etan abiatuko dira Iparragirre sagardotegitik, eta sagardotegietako bidean barrena ibiliko dira baserrietako atarietan koplak kantatzen. Urte zaharrear ere, Ohitura Zaharrak Abesbatzarekin batera, Kaxkotik barrena egingo dute erronda. Kasu honetan arratsaldeko 17:30etan abiatuko dira Hernaniko udaletxeko arkupeetatik.

Bertso saioei dagokienez, inuxenteen egunean izango da hurrengoa, hilaren 28an. Xalaparta elkartean egingo dute aurtengo bertso afaria, Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsozaleekin. Izena emateko epea bihar itxiko dute; hortaz, berantiarrek gaur edo bihar pasa

beharko dute Aralar, Txili edo Garin tabernetatik, bertan dauden zerrendetan apuntatzeko. Bertatik pasatzeko aukerarik ez dutenek, @paulotxikiya instagram kontura idazteko aukera dute.

Jaialdi nagusia urte berriarekin batera iritsiko da. Urtarrilaren 4an Biteriko areto nagusian abestuko dute Maialen Lujanbiok, Eñaut Martikorenak, Beñat Gaztelumendik, Eneritz Artetxek eta Aitor Sarriegik. Jaialdirako sarrerak saioa hasi baino lehenxeago jarriko dituzte salgai, Biteriko leihatilan bertan.

Bertso Lata urtarrilaren 5ean amaituko da aurten, errege egunaren bezperan. Duela urte batzuetako ohitura berreskuratuta, kale antzerkia egingo dute bertso eskolako kideek. Kaxkoko txokoetan eskainiko dute ikuskizuna, poteoan dabiltzan herritarren gozamenerako. Hortaz, kuadrilla xeble bat kalean zehar ikusi ezkerro, ez dadila inor larritu!

## Bikain joan dira orain arte egindako bi saioak

Pasa den astean Hernaniko eskoletako haurrei eskainitako saioa egin zuten Biterin. Unai Gaztelumendik eta Eli Pagolak



Eli Pagolak eta Unai Gaztelumendik kantatu zuten umeen saioan.



Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Saioa Alkaiza, iazko jaialdian.

abestu zuten, eta Gartxot garbitzaile xebleari tokatu zitzaion gaiak jartzea. Ederki pasa zuten Hernaniko gaztetxoek.

Atzo arratsaldean, berri, Kontrakantxa Gaztetxea izenez eta izanez bete zuten. Amaia Agirre, Amaia Iturriotz, Asier Ibarburen eta Asier Azpiroz 'Azpi'

aritu ziren kantuan, Amaia Urbietak prestatutako gaiak erantzunez. Giro polita sortu zen gaztetxean, eta bertsozaleek asmatu zuten saioaren berezitasunari zukua ateratzen.

Bertso Eskolatik falta diren jardueretan parte hartzeko deia egin dute. **k**

## BERTSO LATA 2024

### ABENDUAK 24

**16:00** Gabonetako erronda Iparragirre sagardotegitik abiatuta.

### ABENDUAK 28

**20:30** Bertso afaria Xalaparta elkartean. Sustrai Colina eta Amets Arzallus. Bihar da izena emateko azken eguna.

### ABENDUAK 31

Urte zaharreko erronda.

### URTARRILAK 4

**19:00** Bertso jaialdia Biterin. Maialen Lujanbio, Eñaut Martikorena, Beñat Gaztelumendi, Eneritz Artetxe eta Aitor Sarriegi. Sarrerak egunean bertan, lehiatilan.

### URTARRILAK 5

**12:00** Kale antzerkia.





**Iturriaga, 3 HERNANI**  
Tel. 943 55 65 64

[www.Facebook.com/urratshernani](https://www.facebook.com/urratshernani)  
[@ urratshernani@gmail.com](mailto:urratshernani@gmail.com)

## JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Aurtengo Gabonei elkartasuna eskatuko diegu eta urte berriari osasuna. Urratsen partetik: "Zorionak eta urte berri on!"



**Gabonetako ordutegia: Egunero 9:30-13:00 eta 17:00-20:00**  
Larunbata 21, 9:30-13:30 eta 17:00-19:30  
Asteartea 24, 9:30-13:30 eta 16:00-19:00

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI MAITEAK,

\_\_\_\_\_ NAIZ, \_\_\_ URTE DITUT, ETA \_\_\_\_\_ -N BIZI NAIZ...



A series of horizontal lines for writing, enclosed within a dashed border.

Hartu margoak  
eta ekin  
margotzeari!

